



**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Asteazkena
2009-09-16**

VILURTEA 1.777.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

Herri mailako konpromisoa bultzatu nahi dute Mugikortasun Astean

TOLOSALDEA Ekintza ugari antolatu dituzte bihar hasi eta hilaren 23ra arte, 'Hobetu zure herriko klima' lelopean

BERRIKUNTZA 'www.tolosaldeagaratzen.compartir.org' bidez ibilgailu pribatuak partekatu ahal izango dira 6



Kalebeherako auzoko Erbeta parkean kokatu dute modulu aurrefabrikatua. E. EZEIZA

BEHIN-BEHINEKO HAUR ESKOLAK AURKI IREKIKO DITU ATEAK

ALEGIA Udaletik azaldu dutenez, azarorako irekitzea aurreikusi dute; 6 haur onartu dituzte eta oraindik zabalik dago izena emateko epea 5

Lokal berria inauguratuko du Behar-Zanak larunbatean

VILLABONA Inaugurazio ekitaldia 20:00etan izango da; Egoitza berria bisitatu dutenak «oso gustura» daude aldaketarekin 3

Euskaltelen kable bidezko TDT eskaintzaren zati da 28 kanala

TOLOSALDEA Eskualdeko telebistak akordioa sinatu du komunikazio enpresarekin 2

Parte-hartze altuarekin «harrituta» II. Mendi Martxako antolatzaileak

ARESO 277 mendizalek hartu zuten parte ibilaldian; iaz 80 baino ez ziren izan 7



HITZA udako argazki lehiaketa




bidali opor hauetako argazkiak!

NORA BIDALI?

tolosaldean@tolosaldekohitza.info helbide elektronikora edo HITZAren Tolosako edo Leitzako egoitzetara



sari mundialak



Euskaltelen kable bidezko TDT eskaintzaren zati da orain 28 Kanala

Komunikabideak »

Eskualdeko telebista eta komunikazio enpresak hitzarmen bat sinatu dute zerbitzu hau eskaintzeko.

ESTI EZEIZA

Hemendik aurrera, Euskaltekin, kable bidezko TDT eskaintzaren barruan ere ikusi ahal izango da 28 Kanala. Atzo aurkeztu zuten bi enpresek sinatutako akordioa eta honi esker, gaurtik, Euskalteko kable bidezko TDT eskaintzaren zati izango da 28 Kanala.

Orain arte, bi modutara ikusi zitekeen eskualdeko telebista kanala: uhin bidez, analogikoan UHF 45ean, Tolosan, eta UHF 25ean, Villabonan. Baita, kable bidez ere, Euskaltekin, analogikoan, S-11ri emanda.

Aitor Markaia Euskalteko Marketing zuzendariak, Koldo Unanue Euskalteko Telebisten alorreko kudeatzaileak eta Jon Aldanondo 28 Kanaleko zuzendariak eman zuten atzo aldaketan berri. Azken honek azaldu zuen bi izango direla berrikuntzaren onura nagusiak. Alde batetik, aro digi-



Atzo goizean aurkeztu zuten berrikuntza, bertan izan ziren: Aitor Markaia, Jon Aldanondo eta Koldo Unanue. E. EZEIZA

telean sartzean, ikusteko orduan kalitate hobea izango dute irudiek. Bestetik, Tolosaldean ez ezik Euskal Autonomia Erkidegoko beste hainbat txokotan ere ikusi ahal izango da telebista katea. Horretarako, 28 kanala jartzea besterik ez dute izango eskualdetik kanpo daudenek.

Koldo Unanuek azalduko a-

ren arabera, Tolosa, Ibarra, Villabona eta Zizurkilera eragin handia izango du aldaketak. Herri hauetan, herritarren %55ak Euskaltelen kable bidezko emisioa baitu etxean. Honela, lehen ikusten ez zuten askok ikusi ahal izango dute eskualdeko telebista.

28 Kanalekoak nahiz Euskaltekoak gustura agertu ziren atzo

hitzarmenarekin. Bestalde, hemendik aurrera, Euskaltekin, kable bidez ikusten zuteneko dekodetzailerik digital bat ipini beharko dute etxean, TDTko kanal guztiak ikusi ahal izateko. Hala ere, Euskaltelen bidez kablearekin telebista ikusten dutenek, ez dute itzalpen analogikorik izango, borondatezkoa izango da digitalizazioa.

Tolosaldea IKTk gaztetxoentzat igeriketa ikastaroak antolatu ditu

Tolosa » Udako oporraldiaren ostean berriro lanari ekiteko prest dago eskualdeko igeriketa taldea.

ERREDAKZIOA

Denboraldi berriari ekiteko prest da jada Tolosaldea Igeriketa Kirol Taldea. Aurten ere, igeriketa ikastaroak eta hobekuntzarakoak emango dituzte Usabal kiroldegian. Hauek sei urtetik gorako neska eta mutilei zuzenduta daude.



Modalitate ezberdinetan aritzen dira igerian eskualdeko gaztetxoak. HITZA

Zenbait astetan, oporretan egon dira Tolosaldea IKTk, baina berriro, lanean hasteko gogoarekin datoz. Hori dela eta, oraingoan deialdi berezi bat egiten die, igeri egiten ikasi nahi duten 6 eta 12 urte bitarteko haurrei. Baita lau estilotan hobetu nahi dutenei ere. Ikastaro hauetan, haurrek, uretan jolasten ikasiko dute, baita lagun berriak ere.

Igeriketa taldekoen helburu nagusietako bat da, haurrek, estilo ezberdinetan, gutxi gorabehera, ongi moldatzen ikastea. Txapelketetan parte hartu nahi ez badute ere, bereaien egunerokotasunean, kirol hau txertatua izan dadin. Maila eta jakintzen arabera, talde ezberdinetan banatuko dira gaztetxoak. Dena den, Tolosako Udalak, eta Foru Aldundiak antolatutako lehiatan parte hartzeko aukera ere izango dute, nahi izanez gero.

Igeriketa eskolei hilaren 28an ekingo diete. Honenbestez, berean parte hartu nahi dutenek, izena emateko, Usabal kiroldegira jo beharko dute. Bestela, 10:00etatik 13:00etara bitartean, 667 63 17 42 telefono zenbakira deituta, eta Txema edo Maitanerengatik galdetuz. Bakoitzari zein maila dagoen erabakitzeko, proba batzuk egingo dituzte hilaren 22an eta 23an, 18:00etatik aurrera. Hemen zehaztuko dituzte bakoitzari dagozkion ordutegiak zeintzuk diren ere.

Laburrak

'Liverpool' filma ikusgai izango da bihar Leidorren

TOLOSA » Bihar Zine-Forumean Liverpool filma ikusteko aukera izango da Leidor antzokian. 19:15ean izango da lehen emanaldia, eta 21:45ean, bigarrena. Ushuaian grabatuta dago filma, Lisandro Alonso da zuzendaria, eta Xixongo Nazioarteko Jaialdiko luzemetrai onenaren saria eraman zuen iaz. Film honetan, bere jaioterrira itzultzen den marinel baten istorioa kontatzen da.

Haur eskolan izena emateko epea zabalik dago

BERROBI » Ikasturtea hasi bada ere, oraindik aukera dago Berrobiko haur eskolan izena emateko. Gaur zabaltzen da horretarako aldia, eta hilaren 30era arte luzatuko da. Interesatuak, eskariak haur eskolan bertan egin ditzakete. Informazio gehiago nahi duenak berri 943 68 36 65 telefono zenbakira deituta eskuratuko du.

Shiatsuari buruzko hitzaldia Kultur Etxean

AMASA » Amasako Kultur Etxean shiatsuari buruzko hitzaldia izango da, bihar, 19:30ean. Shiatsua masajea emateko teknika bat da eta gorputza ulertzeko filosofia bat. Hitzaldian azalpen gehiago emango dituzte aditua den Pilar Sedanok eta herritarra den Karlos Galarragak. Egun horretatik aurrera, nahi duenak aurrez ordua hartuta dohainik masaje horiek jasotzeko aukera izango du.

Arraunean hasi nahi dutenentzat deialdia

TOLOSA » Hemendik gutxira hasiko da 2009-2010eko arraun denboraldia. Hori dela eta, Tolosaldeko Arraun Klubak dei egiten die, 2000. urtea baino lehen jaio direnei, kirol hau ezagutu dezaten. Arraunean hasi nahi dutenek orain izango dute horretarako aukera. Honenbestez, hilaren 21ean, 23an eta 25ean Zerkausi azpian informazio gehiago jaso ahal izango dute interesatuak. Bertan egongo dira TAKEkoak, 18:00etatik 20:00etara bitartean.

Idazketa tailerra antolatu du Ereite elkarteak

TOLOSA » Ereite elkarteak idazketa-tailerraren edizio berri bat antolatu du hasi berri den ikasturterako. Eskolak asteazkenetan izango dira, 18:00etatik 20:00etara bitartean. Hauek, elkartearen egoitzan (San Esteban auzoan) emago dituzte. Hiru hilabeteko iraupena izango du ikastaroak. Gaur bertan hasiko dira, hala ere interesa duenak oraindik eman dezake izena 685 75 05 61 telefono zenbakira deituta. 15 euro balio du ikastaroak eta gaztelaniaz izango da.

KEY-LAN
Sarraizgintza
Nafarroa etorb. 11 beheko - TOLOSA
Mug.: 678 41 79 22
Tel./Fax: 943 65 03 13

2009ko USATEGIEN ENKANTEA
BIRIGARRO ETA USOA Areso (Nafarroa)
Tel.: 948 510 327 - 608 928 626
Donostiatik 20 minututara
Paradetaraino sarbidea kotxez
Enkantea Udaltzeko Batzar Arretuan burutuko da.
1go enkantea: irailaren 19an Larunbata 19:00
2.enkantea: irailaren 26an Larunbata 19:00

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Gurasoek hurrekin euskaraz jolasteko ikastaroa

ERREDAKZIOA

Anoetako Udalak Anoetako Herri Ikastolarekin elkarlanean ikastaroa antolatuko du 4 eta 11 urte bitarteko haurren gurasoentzat, beraien hurrekin euskaraz jolas dezaten. Eskualdeko edozein ikastetxetan eskolatutako Anoetako haurren gurasoek har dezakete parte, herriari bizi edota erroldatuta baldin badaude. Parte-hartzaile kopurua 12 eta 20 lagun artekoa izango da.

Ikastaroa Anoetako Herri Ikastolan izango da, astean hiru egunez: astearte, asteazken eta ostegunetan. Zehazki, urriaren 6, 7, 8, 13, 14 eta 15ean izango da, 17:00etatik 19:00etara. Izena emateko epea hilaren 25ean bukatuko da. Anoetako Herri Ikastolako idazkaritzan egin behar da, 09:00etatik 13:00etara, eta prezioa 10 eurokoa izango da.

Ikastaroetan izena emateko epea zabalik hilabete bukaeraino

ERREDAKZIOA

Villabonako Udalak antolatzen dituen kultur ikastaroetan izena emateko epea zabalik dago. Arte plastikoak, egur taila eta zaharberritze eta eskulan tailerrak egingo dituzte. Hil honen amaiera arte dago aukera izena emateko eta horretarako 943 69 16 55 zenbakira deitu behar da.

Arte plastikoetako tailerrak, bai haur eta bai helduenak Larrea auzoko 20. zenbakian emango dira. Helduak asteazkenetan ariko dira eta hiru orduz izango dituzte aukeran: 10:00etatik 12:00etara, 16:00etatik 18:00etara eta 18:00etatik 20:00etara. Haurrek asteartetan 17:15etik 18:15era eta 18:15etik 19:15era, eta ostegunetan 16:15etik 17:15era, 17:15etik 18:15era eta 18:15etik 19:15era dute aukera. Hilaren 22an hasiko dira ikastaroak eta prezioa 60 eurokoa da.

Egur taila tailerrentzat bi orduz izango da, biak astelehenean: 15:00etatik 18:00etara eta 18:00etatik 21:00etara. Urriaren 5ean hasiko dira eta tailerren prezioa 150 eurokoa da.

Zaharberritze eta eskulan tailerrentzat bi aukera izango dira: astelehenean 17:00etatik 19:30era eta asteartetan 10:00etatik 12:30era. Hilaren 21ean hasiko dira tailerrek eta prezioa 75 eurokoa da. Azken bi tailer hauek Sacemen egingo dituzte.



Behar-Zanaren egoitza berria kanpotik ikusita. I. GARCIA

Lokal berria inauguratuko du Behar-Zanak larunbatean

Villabona » Egoitza berria ezagutzen dutenak «oso gustura» daude; inaugurazio ekitaldia 20:00etan izango da.

ERREDAKZIOA

Behar-Zana elkarteak egoitza berria inauguratuko du larunbatean. Lekuak ez da oso urrutira izango, kale berdinean baitago egoitza berria, Salvadorako eremuan dauden etxeen azpian, hain zuzen. Bazkide gehienek ez dute barrutik ezagutzen egoitza berria, baina ezagutu ahal izan dutenak

«oso gustura» daudela azaldu du Urko Martinez elkarteko lehendakariak. Gogoz daude egoitza berriari biltzen hasteko.

Atzo gauean itxi zuten egoitza zaharra eta egun hauetan lokal berriari eraman beharrekoak mugitzen ari dira. Lokal berriari 130-140 lagunentzako lekua dago eserita jaten egoteko, utziko duten lokalean baino gehiago. Inaugurazio eguneko afarian 155 sartu ahaliko dira. Dagoeneko izena emateko epea bukatuta dago eta goraino beteko dela ziurtatu dute zuzendari-tatik.

Inaugurazio ekitaldiei 11:00etan emango diete hasiera pilota parti-

dekin. Gero, 19:00etan, kalejira izango da txarangarekin herri giroa sortzeko. 20:00etan egingo da inaugurazio ekitaldia. Bazkide zaharrenek zinta moztuko dute eta dantzarien eta bertsolarien saioa izango da. Ondoren bazkideak lokal berriari sartu ahaliko dira. 21:00ak inguruan egingo da afaria. Hurrengo egunean, igandean, Endika Abril Txapelketako partida izango da Errebote plazan, Behar-Zana eta Kanboko elkartearen artean, 11:00etan. Ondoren, bazkaria egingo dute Behar-Zanakoek eta elkarteak gonbidatutakoek: Udaleko ordezkariak, beste elkarteak...



Goibailaran auzolanean aritu dira

ANOETA » Hamar lagun inguru, erdiak herritarrek eta beste erdiak auzotarrak, elkartu ziren asteburuan auzolanean Goibailaran, Ingurumen eta Agenda 21eko Batzordeak bultzatuta. Bertan bi aska agerian utzi eta garbitu zituzten, luizi baten ondorioz tapatuta bai-

tzeuden. Beste bide bat ere konpondu zuten. Errekatxo bat igarotzen da azpitik eta hodia puskatuta zegoenez berria jarri zuten. Laugarren ekimenena da auzolanean egiten dutena eta Batzordetik azaldu dutenez, horrelako ekimenak bultzatzen jarraituko dute. HITZA

Villabonan, Zizurkilen eta Iruran euskara ikastaroak egiteko aukera

Euskara » Maila guztietako ikastaroak egin daitezke; izena emateko epea hilaren 25era arte dago zabalik.

ERREDAKZIOA

Tolosaldeko AEKk matrikula epea irekia dagoela jakinarazi du euskara ikastaroak egiteko Amasa-Villabonan, Zizurkilen eta Iruran. Maila guztietako ikastaroak daude: astean 10, 8 edo 6 orduko euskalduntze ikastaroak (maila guztiak); alfabetatze ikastaroak; EGA, hizkuntza eskakizunak nahiz HABEko 1. mailako, 2. mailako eta 3. mailako azterketak gainditzeko laguntza; eta ostalari, dendarari eta etorkinentzako 60 orduko ikastaroak.

Matrikulazio epea hilaren 25ean bukatzen da. 943 59 17 04 zenbakian, andoain@aeo.org helbidean edo, bestela, hiru udaletako euskara zerbitzuetan eman daitezke izena.

T Telefonoak Larrialdia. ((112))

OSASUNA.

Alegialdea. Osasun z.: 943 653212

Anoeta-Alkiza-Hernalde.

Medikua: 943 65 23 39

Asteasu. Medikua: 943 692423

Baliarrain. Medikua: 943 889003

Berastegi-Elduain.

Medikua: 943 683361

Bidegoian. Medikua: 943 681134

Ibarraldea. Osasun etxea: 943 672411

Ikaztegieta. Medikua: 943 653329

Irura. Osasun zentroa: 943 690720

Leitza. Osasun z.: 948 510800

Orendain. Medikua: 943 655595

Orexa. Medikua: 943 682228

Tolosa.

Anbulatorioa, larrialdia: 943 461111

San Esteban: 943 006800

Gernikako arbola: 943 006900

Amarozko dispen: 943 672637

Asuncion klinika: 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdia)

DYA: 943 672536

Gurutze Gorria: 943 674888

Villabona. Anbulat.: 943 006970

Zizurkil. Aiztondo zerb.: 943 693930

GARRAIOAK.

Renfe: 902 24 02 02

Donostiako autobusa: 943 361740

Tolosalde bus: 943 650621

Leitzaran autob.: 948 221015

Taxia: 943 670420

Taxia (Leitza): 608 873016

BESTERIK.

Ertzaintza: 943 538820

Tolosa-Udaltzaingoa: 943 675858

Tolargi: 943 650016

Iurramendi egoitza: 943 670325

Tolosa gasa: 943 675320

Alkoholiko anonimoak: 943 248474

G Gutunak**Erreferente**

Remi Ayestaranen bihotz handia leherrarazi dute ertzaintzaren jarrerak eta errepresio politikak, oportretan geundela. Ezker abertzaleak goraiatu du Villabonako alkateorde zenaren konpromisoa eta ekarpen militantea; gertuko adiskideek nabarmendu dute zein maitagarria zen; Egibar jeltzaleak «saltsa askotan» sartuta zebilela. Horieta batean ezagutu nuen Villabonan.

Oker ez banago, Euskara eta Hizkuntza Minorizatuen Astea zen. Remik gauzak garbi zituen. Euskal herritar batentzat erdaraz bizitzea kontraesana da; denbora igarota, kontraktosuna; euskararen jardun eza eta isiltze soziala behartzen dituelako... Jarrera ireki hartu behar ditugu beste kulturetatik gurea datozen eraginak eta,

bereziki, Euskal Herrira lan egitera etorri direnenak... Guztien ekarpen onuragarriak integratzea euskal nortasuna aberasteko; nor bere erara, baina euskal kultura denok elkarrekin eraiki behar dugu bilakaera dinamiko batean... Eta ikuspegi horretan, euskara ardatza izan behar du, funtsezko ezaugarria; geure baitatik euskaraz sortutako kultura bizkor hori, Euskal Herrian eta munduan eman eta zabaltzeko.

Euskara ez baita galtzen euskaldunok horrela nahi dugulako, Espainiaren eta Frantziaren eragin kalgatgarriak saihesteko, eta, hizkuntza nazional gisa eraikitzeko estaturik ez dugulako baizik. Testuinguru horrek erakusten du, hain zuzen ere, estatu ahalmenak izatearen garrantzia. Nafarroako euskal estatua armazko egintza bitartekoa da eta albotko bi estatu ho-

rien mendeko, Euskal Herria egoera okerragoan aurkitzen baita dituen erronkei aurre egiteko eta, bere biztanleen eta bere hizkuntzaren interesak defendatzeko.

Nazio komunitate batean estatuak hizkuntza bat sartzen dutenean, hizkuntza gatazka eragin, nazio hizkuntza galarazi eta hizkuntza arrotza nagusi bihurtzen dute. Euskal Herrian, euskara galdu ez den lurralde eta jardunetan, galdu ordean irauten du egoera minorizatuan; euskaldunak eraldunduta, nagusi dira jatorrizko euskara galdu dutenak eta ez dakiten etorkinak; espainiera hegaldun eta frantsesa iparraldean hizkuntza hegemonikoak dira; estatu bitartekoak dituzte eta Bidasoan muga elkarri ez erasotzeko.

Euskararena baizik ez den eremu sartuta, espainierak eta frantsesak eskualde osoak, lan-jardun

sozialak eta kideak lapurtzen dizkiote euskararen nazioari, desegiteraino. Ezin zuzituzkoa da, beraz, bi hizkuntza horien iraunkortasuna Euskal Herriko bizitza sozial eta publikoan. Euskarak premia larria du espazio politikoa, soziala, ideologikoa eta instituzionala irabazteko Euskal Herri osoan, bote-re egoeran kokatu arte. Bortxaz kendutakoa berreskuratzeko, kohesio soziala indartzeko eta garenakizateko—euskaldunak eta Euskal Herria—. Horrela, gure herriaren eta munduko kulturen aniztasuna ere bermatzeko.

Euskararen egungo ingurunea ez baita iraunkorra eta mendeko hizkuntza politiken neurri aringarriak ahulak baitira Euskal Herri euskaldunaren berreskuratzeko osoa lortzeko; PSOE nahiz EAJ Jaurilaritzan egon. Estatuak beren hizkuntza inbaditzaileak bertako-

tu ostein—euskal elebidunok eraldunetaz inguratutik eta euskararen jardun soziofuntzionalak biderak harturik—, gure nazio hizkuntzaren ondoriozko gainbehera gerta baitaiteke estatuen bultzada behar izan gabe. Hau da, lehen bortxaz lortutakoa, orain «tolerantzia demokratikoaz» irauaraztea.

Jarrera zapaltzaile horren ondoren. Remi gazteak erakutsi digu bidea. Euskara ezpainetan, Villabonatik etengabe aurre egin zion espainiera eta frantsesa inposatzeko jarrera imperialistari; uneoro ahalegindua zen Euskal Herri euskaldunaren berreskuratzeko; egunero, hizkuntza politika berri baten neurri berreskuratzaileak eraikitzen. Remi erreferentea da Euskal Herriko ezkerriari, abertzale eta demokratikoz guztiztatzeko.

Inazio Agirre Arregi. Ezker abertzaleko kidea.

Tolosa CFko alebinak txapeladun Palentziako Txapelketan

Tolosa » Pisuerga Venta de Baños taldearen aurka irabazi zuten finalean (6-1); azken bi urtetan garaipena lortu dute urdinek.

ERREDAKZIOA

Palentziako (Espainia) Venta de Baños herrian jokatu zuten bertako tornea Tolosa CF taldeko alebinak pasa den asteburuan. Bertan «bikain» aritu ziren eta garaipena bueltan ekarri zuten etxera. Erraz gailendu ziren tolosarrak gainontzeko taldeen aurrean eta alde handiko garaipenak erdietsi zituzten.

Ligaxkan Pisuerga Venta de Baños A eta B eta Revilla de Camargo

(Kantabria, Espainia) taldeen aurka aritu ziren eta 0-5, 8-1 eta 7-2 egin zuten, hurrenez hurren. Finalean, berriz, Pisuerga Venta de Baños B taldearen aurka aritu ziren eta markagailuan 6-leko emaitzarekin amaitu zuten neurketa.

Garaipena lortu zuten gaztetxoak Ollano-Otermin-Andoni-Bittor-Beñat-Ormaetxea-Xabi B-Odeir-Zubiarrain-Mikel-Yarza-Iparragirre-Pablo-Aritz-Odrizola eta Arranz izan ziren. Entrenatzaile lanetan, berriz, Javier Zurutuza eta Javier Martinez aritu ziren.

Garaikurra, Marta Domingez eskutik

Tolosa CFko alebinen kapitainak emozio handiz jaso zuen txapel-

dun garaikurra. Ez zen edozeinen eskuetatik etorri, gainera. Hain zuzen Palentziako Marta Domingezek eman zion sari gaztetxoari, 3.000 metro oztopo-lasterketako munduko txapeladunak. Izan ere, Marta Domingez Venta de Baños futbol taldeko amabitxia da.

Ekainean, beraien etorriko dira

Txapelketa hau elkartruke baten ondorioz sortu zen. Honekin hiru dira tolosarrek Palentzia bisitatu dute aldiak. Ekainean, berriz, Venta de Baños taldekoak etorriko dira Tolosara.

Tolosako Udaleko kirol zinegotziak, bere aldetik, Tolosako gaztetxoek eginiko lana goraiatu zuen, «kirolari handiak» direla esanez.

Eloy Velasco epailearen aurkako salaketa artxibatu dute

Politika » Erabakia Botere Judizialeko Kontseilu Nagusiak hartu du, aldeko lau bozkekin eta kontrako bozka bakarrarekin.

ERREDAKZIOA

Maite Aranalde euskal preso ibarritarra fidantzapean aske utzi zuen Eloy Velasco epailearen kontrako salaketa artxibatu dute. Hala jakinarazi zuten atzo, Botere Judizialeko Kontseilu Nagusiaren ebazpena jaso ondoren. Hain zuzen ere, aldeko lau bozkekin eta kontrako bakarrarekin artxibatu dute salaketa.

Manos Limpias sindikatu ultraeskuindarrak jarri zuten Entzutegi Nazionaleko Eloy Velasco epailearen kontra jarritako salaketa

Hain zuzen, Aranalde Espainiaratua izan zen abuztu amaieran. Egun bat beranduago, Eloy Velasco epaileak (Garzonen ordezkapean egiten ari zenak) fidantzapean aske uzteko erabakia hartu zuen. Etxetik gertuen zuen polizia etxean Eloy Velasco epailearen kontrako salaketa artxibatu dute. Hala jakinarazi zuten atzo, Botere Judizialeko Kontseilu Nagusiaren ebazpena jaso ondoren. Hain zuzen ere, aldeko lau bozkekin eta kontrako bakarrarekin artxibatu dute salaketa.

Irailak 19, 12:00etatik
Irailak 20, 12:00etara

VILLABONAKO
Olaederra kiroldegian

24 orduko
FUTBITO txapelketa

Izen ematea 943 69 44 58 telefonon
(kontaktu telefonoa erantzunaldun utzi)
edo billabonara@gmail.com
helbide elektronikoa.

Prezioa taldekako: 100€
SARIAK: 1.saria 900€ 2.saria 450€
Lo egin edota atsedean hartzeko lekua izango da
Antolakuntzak ez du hartuko Bertan
gerta daitezkeen ezberrien erantzukizunik

Laguntzaileak: **hitza** Villabonako Udala

MAITRIAKU AITZUL UDAL EUSKALTEGIA

Rondilla 34-B. 3.a
20400 TOLOSA
tel. 943651066 - 943652343
www.aitzuludal.org
aitzul@aitzuludal.org

Mugikortasun iraunkorra bultzatzeko astea

Ingurugiroa » Ekintza ugari antolatu dituzte hilaren 23a bitarte Mugikortasun Astearen baitan.

REBEKA CALVO

Aurtengoan *Hobetu zure herriko klima* leloa aukeratu dute Mugikortasun Astea izenpetzeko. Ekintzak gaur bertan hasiko dira eta hilaren 23ra arte iraungo dute.

Tolosalde Garatzenek esandakoaren arabera, aurtengo leloa klima meteorologikoaz baino, «hiri eta herrietako atmosfera orokorraz eta jendearen bizi kalitatea eragiten duten» alderdiekin du zerikusia, hala nola, «airearen kalitatea, zarata, gune publikoen kalitatea, errepidearen segurtasuna, kohezio eta integrazio soziala...». Horiek horrela, herri mailako konpromisoa bultzatu nahi dute eta baita aldaketa klimatikoari aurre egiteko eta mugikortasun iraunkorrari «dedikazioa eta determinazioa agertu».

Ekintzak gaur bertan hasiko dira, lehena, dena den, zerbitzuben abiaraztea izango da. Izan ere, bailaran *compartir.org* abiaraziko dute. Zerbitzua erabili ahal izateko helbidea *www.tolosaldeagaratzen.compartir.org* da eta bertan eskualdeko edonorrek in autoa partekatzeo aukera eskaintzen

dute. Zerbitzu honen bidez Tolosaldea Garatzenek autoaren erabilera arrazoizkoagoa bultzatu nahi du ibilgailu pribatua partekatzeo interesa duten pertsonen elkar ezagut dezaten. Helburuak hortaz hauek dira: herritarren joan-etorrietan iraunkortasuneko neurriak bultzatzea, ibilgailu pribatuek sortutako energiaren kontsumoa eta kutsadura gutxitzea eta espazio publikoaren erabilera hobetzea.

Ibilgailu pribatuak partekatu ahal dira 'www.tolosaldeagaratzen.compartir.org'-en bidez

Mugikortasun Astearen datoen egunetako ekitaldiak bizikleta txekeoak, ibilaldiak, bizikletak konpontzen ikasteko ikastaroak eta antzekoak izango dira.

Herri desberdinetan antolatu dituzten ekitaldietatik bi dira nagusiak: Villabonako Berdura Plazan hilaren 19an egingo duten Bigarren Eskuko Azoka eta hilaren 20ko bizikleta martxa.

Bigarren Eskuko Azoka

Bigarren Eskuko Azoka Berdura Plazan jarriko dute larunbatean 10:00etatik 13:30era. Bertan jendeak emandako material desberdina erosi ahal izango da: bizikletak, tri-

zikloak, patinak, patineteak, kaskoak, kilometro kontagailuak, eskularruak, mailotak, umeak zaintzeko kotxeak... Hauen salneurria materiala eraman duen pertsonen ezarritakoa izango da eta merkaturuan saltzen bada dirua jabeari emango diote, nahiz eta materialen jabea ez den merkaturuan egongo. Saltzen ez duten jabeek bueltatuko diete. Oraindik ere badago materiala uzteko aukera, epea bihar bukatuko baita; Adunan, Asteasun, Ibarran, Iruran eta Zizurkil- en udal txetan utzi daiteke, Anoetan kiroldegian eta Villabonan udaltzaingoa aurretik deituta (943 69 39 80).

Bizikleta Martxa

Igandean Bizikleta Martxa egingo dute Asteasu, Anoeta eta Ikaztegieta artean. Martxa honekin Tolosaldeko bidegorriak ezagutzeko aukera eskaini nahi dute eta bi ibilbide izango dira. Biak ala biak 10:00etan hasiko dira, lehena Asteasuko plazatik aterako da eta handik Zizurkilera, Villabonara, Irurara eta Anoetara joango dira. Bigarrenegoa, aldiz, Ikaztegieta plazatik irtengo da eta handik Alegia eta Tolosa gurutzatuta Anoetara joango dira. 11:30ean hamaiketako egingo dute Anoetako plazan eta 12:00etan itzuliko dira. Parthartzaile guztien artean bizikleta bat zozketatuko dutela ere esan dute antolatzaileek.



Iaz Asteasu eta Zizurkil arteko bidegorria inauguratu zuten herritarrek Mugikortasun Astearen baitan. HITZA

» EGITARUA HERRIZ HERRI

Aduna

■ **Hilak 22.** Goizean zehar Adunako Herri Eskolako umeekin batera, herri gunean aurkitzen diren autoentzako aparkalekuen kontaketa eta emaitzak ezagutzera emango dituzte. Arratsaldean, berriz, bizikleta txekeoak egingo dituzte.

Amezketza

■ **Hilak 16.** 14:30etik 16:30era bizikleta txekeoa.
■ **Hilak 19.** Mendi ibilaldia. Irteera 10:00etan izango da Zumadi Herri Eskolatik.
■ **Hilak 22.** Eskolara oinez.

Anoeta

■ **Hilak 21.** 17:00etatik 19:00etara bizikleta txekeo egingo dute herriko plazan.
■ **Hilak 22.** Autorik gabeko eguna. Herriko plazatik ikastolara patinetan, bizikletaz... joango dira.

Asteasu

■ Bizikleta txekeoak, bizikletak konpontzeko ikasteko aukera.

Belauntza

■ **Hilak 18.** Bizikleta txekeoak.

Berastegi

■ **Hilak 18.** Bizikleta itzulia eta bizi-

kleta txekeoak egingo dituzte herriko eskolan.

■ **Astean zehar.** Bonotaxia txartela bultzatu eta informazioa zabalduko dute.

■ Oinazbusa abiaraziko dute.

Berrobi

■ **Hilak 19.** Mendi ibilaldia. Irteera 09:30ean Herri Eskolatik. Hamaitaketa eskainiko dute.
■ **Hilak 23.** 17:00etatik 19:00etara bizikleta txekeo egingo dute herriko plazan.

Ibarran

■ **Hilak 17.** 17:00etatik 19:00etara

bizikleta txekeo egingo dute Emeterio Arrese plazan.

■ **Hilak 23.** Ibarako Mugikortasun Planaren aurkezpena Kultur Etxean 19:00etan.

Irura

■ **Hilak 22.** Plaza autoentzako itxiko dute, plaza kotxerik gabeko gunea bihurtuko dutelarik. Errepidea herritarrek euren ekintzak garatzeko irekiko dute, batez ere haur eta jubilatuentzako ekintzekin.

Villabona

■ **Hilak 19.** Bigarren eskuko azoka 10:00etatik 13:30era. Bizikletak,

kaskoak, patineteak, kilometro kontagailuak... salduko dituzte.

■ **Hilak 21.** Bizikleta txekeoak eta bizikletak konpontzen ikasteko aukera.

Zizurkil eta Villabona

■ **Hilak 22.** Zubimusu ingurua ibilgailuentzat itxita egongo da. Kalea oinezkoentzat izango da eta bertan egun guztian zehar tailerrak, jokuak, autoa partekatzeo zerbitzua eta mugikortasun planari buruzko informazioa banatzeko puntu bat egongo da. Herritarrek errepidean beren ekintzak garatzeko aukera izango dute.

Hilberriak



LUXIANO LAS BALARDI

Irurako Gazte Alaiak elkarteo bazkide eta lagunak

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak urteurrenak eskertzak

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95



Egunean bertan ehundik gora mendizalek eman zuten izena, antolatzaileen harridurarako. ESTITXU AZPIROZ

Aresoko II. Mendi Martxarekin antolatzaileak «harrituta» gelditu dira

Mendia » 277 mendizalek egin zuten irailaren 6an Aresoko II. Mendi Martxa; iaz 80 lagun bakarrik elkartu ziren.

ASIER IMAZ

Aresoko Udala, Plazaola Partzuer-go Turistikoa eta Kirol Mankomunitatea «gustura» aurkitzen dira pasa den irailaren 6an ospatu zen Aresoko II. Mendi Martxak eduki zuten arrakastarekin. Iaz 80 lagun irten baldin baziren, aurten 277.

Parte-hartzearekin lur eta zur

Antolatzaileen esanetan aurretik 150 mendizalek eman zuten izena. Egunean bertan, ordubete lehenago, izugarriko ilarak sortu ziren. «Aurten egia esanda, deialdia askoz gehiago zabaldu dugu. Nafarroako Mendi Federazioaren zirkuituan sartu dugu Mendi Mar-



Mendizale gehienek 5 ordu inguruan osatu zuten 23 km-ko ibilbidea. E. AZPIROZ

txa eta horrek ere bere eragina izan du. Hurrengo urteetarako zer hobetu behar dugun badakigu eta ekimenari jarraipen bat ematea da gure asmoa. Balorazioari dagokionez, oso ona egiten dugu, parte-hartzea bikaina izan baita».

Jendea Nafarroako hainbat puntutatik hurbildu zen Aresora,

baita Gipuzkoatik ere. Antolatzaileen esanetan, nahiz eta mendi esanguratsurik ez eduki Mendi Martxak, «ibilbidearen erraztasunak, erdi ezkutuko paraje eder hauek, jai giroak eta martxa lehiakorra ez izateak jende asko erakarri du». Hurrengo urtean lortua mantentzea izango dute erronka.

Mendi Ibilaldia Amaiurrera

Leitza » Izena emateko aukera bihar amaituko da; Maimur, Astiz eta Mendibilen web orrian jarri dituzte zerrendak.

A. IMAZ

Mendibil Mendi Taldeak eta Aurdera KEK egun pasa antolatuta dute hilaren 19an, larunbatean. Herri-tarrei eta ingurukoiei irteeran parte

hartzeko eskatu diete. Horretarako hainbat aukera eta informazio eskaini dituzte antolatzaileek.

Ibilbidearen nondik norakoak

Autobusa 07:30ean irtengo da Leitza-tatik, hain zuzen ere Oialde pareratik. Urdazubira iristean, motxilak hartu eta bertatik hasiko da Mendi Ibilaldia. Bidean Otsondoko gaina, Lizarmeakako lepoa, Alkurruntz eta Zuetako lepoa zeharkatuko dituzte, Amaiurrera iritsi aurretik.

Antolatzaileen esanetan 4 edo 5 orduko ibilbidea egingo dute.

Izena emateko aukera zabalik

Mendi Ibilaldira joan nahi dutenek izena emateko hiru aukera dituzte, hori bai, bihar itxiko dira zerrendak.

Aldebatetik Astiz eta Maimur liburudendetan apuntatu ahal izango da. Bestalde mendibilaurre-ra@hotmail.com helbide elektronikoa eman ahal izanen da izena.



Ozaetan (Araba) grabaketa eta jai antolatuta dituzte hilaren 19an. EAL

Film grabaketa eta Akelarre festa Ozaetan hilaren 19an

A. IMAZ

Eneko Aritzaren Lagunak taldeak aurten estreinatuko omen du *Sua* filma. Helburu horrekin, luzemetraiari azken ukituak ematen omen dabilta. Hala eta guztiz ere azken grabaketa herrikoia antolatuta dute Ozaetan (Araba), Gasteiz ondoan, hilaren 19an, larunbatean.

Taldeko kideek deialdia luzatu dute: «Filmeko azken grabaketa izango da eta ondoren Akelarrea edo jai egingo dugu. Beti bezala, nahi duenak hara joateko ateak zabalik edukiko ditu. Horretarako bi gauza dira beharrezkoak: ondo pasatzeko gogoia eta lo egiteko zautua eta esterila».

Larunbateko egitasmoa

Ozaetan, grabaketa jaiarekin bat eginaz, 11:00etatik 14:00etara maskaren tailerra antolatuta dute bertako Garaion Natur Arteko kideek.

Film grabaketara joan nahi duenak goizean bertara joatea nahikoa izango du. Beste aukera bat arratsaldean jarri dute. Hain zuzen, Ibarroko plazan 15:00etan gelditu denak batera Ozaetara joateko. 16:00etan iritsiko dirabertara. Martxinadaren grabaketa orduan jarriko dute martxan. Behin hau amaitu ostean, afaria egingo dute eta ondoren Akelarre jaiak: «Han gertatzen dena han gelditzen da».

Abel Barriolari berriro ebakuntza egingo diote

Leitza » Pilotaria Mikel Sanchez medikuarekin egon zen herenegun eta ebakuntza berri bat egitea gomendatu zion.

ERREDAKZIOA

Abel Barriolari hilaren 22an, asteartearen, ebakuntza berri bat egingo diote bere eskuin belaunean.

Leitzako pilotaria lesio horretatik sendatzen ibili da azken hilabeteetan. Lehen ebakuntzaren ondoren Valentziara joan zen Barriola, errehabilitaziorako goi mailako kirolarien zentro batetara. Emaitzak ordea ez dira espero bezalakoak izan.

Hasiera batean urrian berragertzea pentsatzen baldin bazuen ere, itzulera atzeratu beharrean aurkitzen da une honetan. Lau t'erdiko eta Binakako Txapelketak ezin izango omen ditu jokatu Abel Barriolak. Egunkari desberdinen ara-

bera buruz-burukorako sendatuko omen da leitzarra.

Lesiotik irten ezinik

Mikel Sanchez medikuak herenegun ikusi zuen Abel Barriolaren eskuin belauna. Apirilean lesioa eduki zuen eta orduan egin zioten lehen ebakuntza. Herenegun ordea, uste baino okerrago aurkitu zuen Sanchez medikuak leitzarra bere belauna. Ondorioz, beste ebakuntza bat egitea gomendatu zion. Duela bost hilabetekeoa baino arinagoa izango da asteartearen egingo diote ebakuntza.

Iragarki laburrak

LANA

■ **Banatzaila.** Banatzaile gidaria behar dugu. Tolosaldekoa. Interesatuak deitu 648 00 47 98 telefono zenbakira.



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.
Publizitatea: 661 678 818 tolosa@iragarri.net.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko hitza.info.
Ibarra: 687 410 032. ibarra@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**


Afrikara egin dute bidaia gure parte-hartzaile batzuek; beste batzuk aldiz, etxen inguruan geratu dira eta irudi ederrak harrapatu dituzte.

Afrikatik Aralarra

ZANZIBAR

Afrika aldera egin du bidaia Ainhoa Larreak. Bere egonaldian leku zoragarriak bisitatu ditu, tartean, Zanzibarreko hondartza eder hau, Tanzania. Koloreak ez dira nolanhikoak.

AINHOA LARREA (ZIZURKIL)



GORONGORO

Tanzania eta Kenya bisitatu ditu Kandidok Ainhoarekin batera. Gorongoroko argazkia bidali digu eta «magiaz beteriko lekua» dela esan digu.

KANDIDO AIZPURUA IPINTZA (ZIZURKIL)



EGUZKILOREA • Etxetik gertu ere irudi ederrak topa daitezke. Joxe Mari Aralarren eginiko txangoan argazkia atera zion eguzkiloreari. «Argazkia Aralarren ateratakoa da ta bertan eguzkilore bat ikus daiteke», azaldu du. JOXE MARI ETXEBERRIA (TOLOSA)

A Agenda

Deialdiak

- **Izaskun.** Izaskun izena dutenen festa Izaskunen hilaren 20ean: 12:00etan toka, jarraian meza, bazkaria Izaskun jatetxean eta musika Iñigo Perurenarekin. Izen-ematea, 943 675927 (goizez) telefono zenbakian 17a bitarte.
- **Ibarra.** Sendi Ekintza elkarteak ezohizko batzar orokorra egingo du irailaren 18an (ostirala). Lehen deialdia 19:30ean izango da, eta bigarrena 20:30ean, Sendi Ekintza elkartearen egoitza (sagardotegian), Ibarra plazan. Gaiak hauek izango dira: Estatutuen berri eta bozketa, eta Zuzendartza Batzordearen aurkezpena eta bozketa.
- **Tolosa.** Alzheimer gaixotasuna, gertuko errealitatea hitzaldia Kultur Etxean, 18:30ean, Afagi elkarteak antolatuta.
- **Tolosa.** Bisita gidatuak Topic-en (Euskal Herria plaza) hilaren 19ko eta 26ko eta urriaren 3ko eta 10eko asteburuetan, 12:00etatik 18:00etara. Izen-ematea, TEEen (943 650414 telefonoan, 09:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 19:00etara) edo topic@cittolesa.com.

Erakusketak

- **Ibarra.** Gerrako umei buruzko erakusketak Benito Izagirre kultur etxean. Sobiet Batasuna, Erresu-

ma Batua, Frantzia, Mexiko eta Belgikan haur euskaldunek bizitako bizipenak jaso dira.

■ **Tolosa.** Iñigo Altolagirrenen pintura erakusketak Aranburun.

Kirola

- **Bedaio.** Irailaren 27an II. Raid Lasterketa antolatuta dute Bedaion, 25 km-ko ibilbidea 09:00etan abiatuta. Izen-ematea, 24rako elkartearen (www.bedaio.com).
- **Villabona.** Hilaren 19 eta 20rako Picos de Europa irteera antolatuta du Aizkardi elkarteak. Izen-ematea, elkartearen (649 717182, ostegunetan 20:00etatik 22:00etara).

Irteerak

- **Alegia.** Jubilatutako elkarteak hilaren 23rako Arabara antolatuta du irteera, Laudio, Artziniega, Amurrio eta Gasteiz bisitatu. Izen-ematea, elkartearen 16tik aurrera 11:00etatik 12:00etara 30 eurotan.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

- **Ibarra.** Ugarte, M.T. Euskal Herria, 46. 943 673274.
- **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia, 112.
- **Iruztun.** Gastearena, M. Amaya kalea, 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanien eta iritzien erantzunik.

A Agurrak



Urte askoan!

Egunero delako zuen eguna! **Zorionak Haimar!**